

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

13433 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 41/2015 Legea, urriaren 5ekoa, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena, zigor-arloko justizia bizkortzeko eta prozesuko bermeak sendotzeko.*

Hutsak atzeman dira urriaren 5eko 41/2015 Legean (Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena, zigor-arloko justizia bizkortzeko eta prozesuko bermeak sendotzeko), zeina *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 2015eko urriaren 6ko alean (239. zk.) argitaratu baitzen; beraz, zuzenketa hauek egiten dira:

17. orrialdean, artikuluko bakarraren Hemezortzi zenbakian, hau dioen lekuan:

«Bosgarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

“Bosgarren xedapen gehigarria. *Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoa.*”»;

hau esan behar du:

«Seigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

“Seigarren xedapen gehigarria. *Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoa.*”»

18. orrialdean, artikuluko bakarraren Hemeretzi zenbakian, hau dioen lekuan:

«Seigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

“Seigarren xedapen gehigarria. *Prozedura.*”»;

hau esan behar du:

«Zazpigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. *Prozedura.*”»